

**“Otras Liturgias”** es un proyecto complejo, profundo, innovador y muy personal. Susana Blas, historiadora del arte y comisaria independiente, aceptó el reto que le propuso el Museo de Navarra de ahondar en su lema de que todo el arte es contemporáneo.

Treinta y cinco artistas de distintas generaciones, formaciones y procedencia, entre los que se encuentran doce de la Comunidad Foral de Navarra, dialogan con el patrimonio cultural navarro, con una serie de piezas antiguas que entroncan con el trabajo que estos y estas creadoras interesadas en la espiritualidad, realizan en la actualidad, visibilizando cómo el arte del siglo XXI sigue practicando, aunque a través de otras prácticas, ritos ancestrales para los que en el pasado se empleaban, por ejemplo, talismanes, amuletos, reliquias, objetos votivos o exvotos. Las 35 instalaciones-diálogo, distribuidas por todo el Museo de Navarra, ponen en valor la continuada conexión histórica del arte experimental y de las vanguardias con la espiritualidad. La finalidad de estas conversaciones entre obras del siglo XXI y vestigios patrimoniales de diferentes épocas pasadas, es la construcción de valores inesperados, que nos aporten conocimiento, belleza, curación y reflexión.

Las piezas históricas proceden del Museo de Navarra, del Museo Etnológico de Navarra “Julio Caro Baroja” y de los Fondos de Arqueología del Gobierno de Navarra. Por lo que se refiere al Museo de Navarra, en unos casos las obras contemporáneas se presentan en la exposición permanente dialogando con las piezas históricas en su emplazamiento habitual; en otros casos, las obras se han cambiado de ubicación o se han trasladado desde los almacenes a las salas. Todo ello en un montaje museográfico, diseñado por la arquitecta Ana García, que favorece la presencia de las piezas y su potencial para generar energías entre ellas.

Este catálogo ofrece información de las instalaciones-diálogos expuestas, textos de los y las artistas. Contiene también los respectivos escritos de la comisaria y de la diseñadora, y un ensayo del historiador del arte Ricardo Recuero, sobre el interés de las creadoras y los creadores del arte moderno por las prácticas visionarias, el espiritismo o la teosofía. Además, se incorpora el Poemario que la poeta navarra Itziar Ancín ha escrito sobre la exposición, partiendo de las emociones que le suscitan las obras y el recorrido de la muestra.

Finalmente, se incorpora a modo de “banda sonora” del proyecto, el concierto del dúo de artistas Lolo&Sosaku, quienes presentaron en el hall del museo, una experimentación sonora y lumínica, especialmente diseñada para la exposición.

¿Todo arte, realizado hoy o hace siglos, si se observa desde el ahora, deviene contemporáneo?, ¿puede la experiencia artística sanar?, ¿existen artistas que desempeñan, junto a su trabajo creativo, tareas de acompañamiento terapéutico e imparten prácticas espirituales?, ¿podría ser esta manera de vivir el arte, en diálogo con los cuidados y la curación, una oportunidad para renovar el sentido de la creación en el siglo XXI? Estas son algunas de las preguntas que se plantean en este viaje expositivo.

“Otras liturgias”, exposición y catálogo, proyecto de discurso múltiple y variado sobre temáticas como la Naturaleza y la senda espiritual, los rituales ancestrales o la teología y la magia femenina, es un ejemplo de la labor realizada desde la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana para la preservación, promoción, difusión y creación de todo tipo de expresiones culturales. Tanto una como otro se ofrecen al público como un itinerario abierto a infinitas correspondencias poéticas entre las piezas.

**Rebeca Esnaola Bermejo**  
Consejera de Cultura, Deporte y Turismo  
Gobierno de Navarra

**“Bestelako liturgiak”** proiektu konplexu, sakon, berritzale eta oso pertsonala da. Susana Blas artearen historialari eta komisario independenteak Nafarroako Museoak proposatu zion erronka onartu zuen: “arte guztia garaikidea da” leloan sakontzea.

Belaunaldi, ikasketa eta jatorri desberdinako hogeita hamabost artista (horietatik hamabi, Nafarroako Foru Komunitatekoak) solasean ari dira Nafarroako kultura-ondareko obrekin. Antzinako piezek ageriko lotura dute espiritualtasunaren ildoko sortzaile horiek egun egiten duten lanarekin. Artista horiek agerian uzten dute nola XXI. mendeko arteak jarraitzen duen antzinako errituak egiten, baina beste praktika batzuen bidez, jada ez talismanak, kutunak, erlikiak, botozko objektuak edo zinopariak erabilita, iraganean bezala. 35 elkarrizketa-instalazio daude Nafarroako Museoan banatuta, eta horiek nabarmentzen dute etengabeko lotura historikoa egon dela arte esperimentalaren –abangoardien– eta espiritualtasunaren artean. XXI. mendeko lanen eta beste garai batzuetako ondare-aztarnen arteko elkarrizketa horien helburua da ezusteko balioak eraikitzea, balio horien bidez ezagutza, edertasuna, sendabideak eta gogoetagaia eskuratzeko.

Pieza historikoak honako erakunde hauetatik ekarri dira: Nafarroako Museoa, “Julio Caro Baroja” Nafarroako Museo Etnologikoa eta Nafarroako Gobernuaren Arkeologia Funtsak. Nafarroako Museoari dagokionez, kasu batzuetan obra garaikideak erakusketa iraunkorrean daude –haien ohiko kokalekuan– pieza historikoekin hitz eginez; beste kasu batzuetan, obrak lekuz aldatu dira, edo biltegietatik aretoetara ekarri. Horren guztiaren mutuaia museografikoa Ana García arkitektoak diseinatu du. Antolamendu horrek piezen presentzia nabarmentzen du, bai eta piezen artean energia sortzeko ahalmena indartu ere.

Katalogo horrek elkarrizketa-instalazioei buruzko informazioa eta artisten testuak ematen ditu. Katalogoaren barruan daude komisarioaren eta diseinatzalearen idazki bana ere; orobat, Ricardo Recuero artearen historialariak idatzitako saiakera, non erakusten baitu arte modernoaren sortzaileei jardun bisionarioak, espiritismoa eta teosofia interesatzen zaizkiela. Gainera, Itziar Ancín poeta nafarrak erakusketari buruz idatzi duen poema-multzoa erantsi da. Obrek eta erakusketaren ibilbide osoak sortzen dituztenemozioak izan dira poesia horren abiaburua.

Azkenik, Lolo & Sosaku artista bikotearen kontzertua gehitu da proiektuaren “soinu-banda” gisa. Artista horiek museoko hallean soinu eta argi esperimentazio bat aurkeztu zuten, erakusketarako bereziki diseinatua.

Gaur egun edo duela mende asko egindako arte oro garaikide bihurtzen al da, gaur begiratzen badiogu? Esperientzia artistikoak sendatu al dezake? Artista batzuek, beren lan sortzailearekin batera, akonpainamendu terapeutikoko lanak egin, eta praktika espiritualak eskain ote ditzakete? Artea bizitzeko modu hori izan ote liteke –zainketekin eta sendaketarekin solas eginez– XXI. mendean sorkuntzaren zentzua berritzeko aukera bat? Galderak horiek eta beste hainbat planteatzen dira erakusketa-bidaia honetan.

“Bestelako liturgiak” erakusketa bat eta katalogoa bat da, askotariko diskurtsoa, hainbat gai jorratzen dituena, hala nola natura eta bide espirituala, aspaldiko errituak edo emakumeen teologia eta magia. Adibide egokia da ikusteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia zer lan ederra egiten ari den adierazpide kulturalak babestu, sustatu, hedatu eta sortzeko. Erakusketa eta katalogoa, biak, ibilbide irekiak dira ikusleentzat, piezen artean eraiki daitezkeen korrespondentzia poetiko ugarietara iritsi ahal izateko.

**Rebeca Esnaola Bermejo**  
Kultura, Kirol eta Turismoko Kontseilaria  
Nafarroako Gobernua